

## **PREMIAZKO INTERPELAZIO ZUZENA**

### **NAFARROA HIRIBIDEAN MOZTUTAKO ZUHAITZAK DIRELA ETA**

EH Bildu udal taldeko zinegotzi Izar Hernando Iberok eta Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 97. artikulua ematen dien aukera baliatuz, aste honetan Nafarroa hiribidean moztutako zuhaitzak direla-eta INTERPELAZIO ZUZEN hau aurkezten diote Donostiako alkate Eneko Goia jaunari, hari buruzko azalpenak Udalbatzan ahoz eman ditzan.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Astelehen goizean, Manteon egin asmo den Basque Culinary Center-en eraikuntzaren ondorioz, Nafarroa hiribidean dauden zuhaitzak moztu zituztela jakin genuen. Bizilagunen haserrearekin batera, jakin dugu moztutako zuhaitzak ez direla sartzen GOE-aren obra lizentzian aurreikusitako eremuaren barruan. Beraz, harriduraz eta kezkaz bizi dugu egoera, zuhaitz horiek mozteko baimenaren arrazoia zein den ez baitakigu (baimenarekin moztu badira), zuhaitz gehiago mozteko asmorik dagoen ere ez, ez eta moztu diren zuhaitz horien balioa konpentsatzeko aurreikuspenik dagoen ere.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duten zinegotziek honako INTERPELAZIO hau egiten dugu:

- Zer dela eta moztu dira aurreikusi gabe zeuden zuhaitz horiek, GOEari esleitutako partzelatik kanpo zeudenak?
- Udal Gobernuaren baimenarekin egin al dira zuhaitz mozketa horiek? Hala ez bada, zein neurri aurreikusi ditu Udal Gobernuak?
- Zuhaitz horiek hirian, eta konkretuki, Gros eta Uli auzoetan zuten balioa ordeztzeko beste landaketarik egingo al da?

Donostia, 2024ko urtarrilaren 24an

Izar Hernando Ibero  
EH Bilduko zinegotzia

Arantza Gonzalez Garcia  
Elkarrekin Donostiako zinegotzia